

Etxebizitza babestuaren eskatzaileen zentsua

www.vivienda.navarra.es



Zer da zentsua?

Foru Komunitatean babes ofizialeko etxebizitza eskuratu nahi duten pertsona guztiek izena eman behar duten **ERREGISTRO BAKARRA** da.

Sistema horrek eskatzailea baremo baten arabera sailkatu eta **hiru hilero esleitzen ditu etxebizitzak**:

Martxoaren 1ean, ekainaren 1ean, irailaren 1ean eta abenduaren 1ean.

Orain, behin bakarrik izena emanaz, **babes ofizialeko etxebizitzaren zozketa guztietan parte hartzeko aukera duzu** erosketan zein alokairuan. Gainera, zure lehentasunak erraz aldatzen ahal dituzu, berriro izena emateko premiarik izan gabe. Eta zure egoera pertsonala aldatzen denean baizik ez dituzu eguneratu beharko zeure datuak.

Nork eman dezake izena zentsuan?

Baldintza pertsonalak

Eskatzaileen Zentsuan izena emanen duten pertsonak honako baldintza hauek bete behar dituzte:

1. Adin nagusiak izan behar dute.
2. Nafarroako udalerriren batean erroldatuta egon behar dute, eta bertan bizi.
3. Egoitza-baimena izan behar dute, agiri hori beharrezkoa denean.

Etxebizitzaren titulartasunari buruzko baldintzak

Eskatzaileen Zentsuan izena emanen dutenek, eta haren familiako kide guztiek, honako baldintza hauek bete behar dituzte:

1. Ezin dute eduki beste etxebizitza baten, edo etxebizitza-zati baten, jabetza-titulartasunik edo erabiltzeko benetako eskubiderik, salbu eta etxebizitzak desegokitzat hartua izateko baldintzak betetzen dituztenean.
2. Azken bost urteetan ezin izan dute beste etxebizitza baten, edo zati baten, jabetza edo erabiltzeko eskubidea besterendu, salbu eta besterentzeak 90.000 euro baino diru-sarrera murrizagoak ekarri dituztenean.

Ahalmen ekonomikoari buruzko baldintzak

1. Gutxieneko diru-sarrerak (dagokion errentaren aitortzean):

BOE

Alokairua: 3.000 euroko zerga-oinarri kotizagarria, gehi salbuetsitako errentak.

Salerosketa: 12.000 euroko zerga-oinarri kotizagarria, gehi salbuetsitako errentak.

PTE

Salerosketa: 15.000 euroko zerga-oinarri kotizagarria, gehi salbuetsitako errentak.

Ez dute gutxieneko diru-sarrerarik bermatu beharko mugitzeko desgaitasun larriak dituztenentzako etxebizitzak eskatu dituzten pertsonak, % 65etik gorako desgaitasuna onartuta dutenek eta genero-indarkeriaren biktimek.

2. Gehieneko diru-sarrerak:

BOE 4,5 aldiz OAEAP* (erosketa eta alokairua).

PTE 6,5 aldiz OAEAP* (erosketa soilik).

*OAEAP: Ondorio askotarako errenta-adierazle publikoa.

Zer egin behar dut izena emateko?

Etxebizitza babestuaren eskatzaileen Zentsuan izena emateko bi bide daude:

Modu telematikoa:

1. Sartu www.navarra.es web-atarian eta gero Etxebizitza atalean
2. Sartu "Etxebizitza babestuaren eskatzaileen Zentsua" aukeran.
3. Sartu ziurtagiri digitalarekin edo Cl@ve sistemarekin, eta bete erregistroa zure lehentasunekin.

ADI!

JABETZAKO ETA/EDO EROSTEKO AUKERAKO ALOKAIURUKO ERREGIMENEN IZEN-EMATEAK TELEMATIKOKI EGIN BEHAR DIRA (20/2022 Foru Legearen 27. art.)

Bertatik bertara:

1. Aldez aurreko hitzorduarekin bi kanaletan:
 - telematikoki, Iruñean/Tuteran, www.nasuvinsa.es-en >> Eskatzaileen erroldarako hitzordua
 - telefonoz, Iruñean, Zangozan, Agoitzen eta Donezteben.
2. Liburuxka honi atxikitako zirriborroa bete (www.navarra.es eta/edo www.nasuvinsa.es-etik ere deskarga dezakezu).
3. Hitzordua duzun egunean, aurkeztu zirriborroa izena emateko tokian, eta sinatu emanen dizuten adierazpena, baldintzak benetan betetzen dituzula.

Izena emateko eta aldez aurreko hitzordua eskatzeko tokiak NASUVINSAREN bulegoetan:

- Iruña, Sanduzelaiko etorb. 8, behea (948 012 012)
- Tuteran, Capuchinos kalea 6-1.a (848 420 340)
- Zangoza, Kale Nagusia 8, behea (848 420 145)
- Agoitz, Trinkete kalea 13, behea (848 420 243)
- Doneztebe, Merkatarien kalea 6, behea (848 420 140)

Izena eman ondoren, nahi duzunean alda ditzakezu zure lehentasunak, bai telematikoki (ziurtagiri digitalaren edo Cl@ve sistemaren bidez), bai aurrez aurre, hitzordua eskatuta, izena emateko lekuetan horretarako dauden kanalen bidez.

Zure betebeharra da eskaera eguneratua izatea, eta berehala jakinaraztea, bai aurrez aurre (hitzordua eskatuta), bai telematikoki, emandako puntuazioan edo sartzeko baldintzen betebeharrean aldatu edo eragina duen edozein gorabehera.

Izena emanda nago! Zer jakin behar dut?

- Inskripzioak bi urteko indarraldia duela. Denbora-tarte horretan, datuen bat eguneratu edo aldatuz gero, automatikoki berrituko dela bi urteko epea.
- Sustapen berri batek Etxebizitza Zerbitzuko oniritzia jasotzen duen unean, eta, era horretan, hurrengo esleipen-prozeduran eskainiko direnen artean sartzen denean, hemen kontsultatu ahal izango da: www.navarra.es >> Etxebizitza >> Zentsua >> Etxebizitzen sustapena
- Etxebizitza babestuak adjudikatzeko prozedurak urte bakoitzeko martxoaren 1ean, ekainaren 1ean, irailaren 1ean eta abenduaren 1ean hasten direla. Data horietan 16 egun naturaleko epea hasten da. Epe horretan adjudikatuko diren promozio bat edo denak hautatzen ahal dituzu.

Erosketa hautatuz gero, etxebizitzen adjudikazioan parte hartuko duzu soilik sustapena hautatzen baduzu.

Zentsuaren aplikazioaren bitartez egin beharko duzu: **promozio bat edo gehiago aukeratzen ahal duzu**, betiere kontuan hartuz hala egiten duzunean etxebizitza bakar bat adjudikatuko dela zuk hautatutako sustapenetako batean.

- Egiten diren prozeduren adjudikaziodunen zerrendak NASUVINSAREN iragarki-oholean jarriko direla, baita www.navarra.es >> Etxebizitza >> Irargarki taula
- Etxebizitzarik adjudikatzen badizute, NASUVINSAK edo promozioaren titularrak zuregana joko duela behar den dokumentazioa aurkez dezazun.
- Izena eman duten pertsonen erantzukizuna da errenta-aitorpena aurkezteko borondatezko epea amaitu eta gero **datu ekonomikoak eguneratzea**.

Eskatzaile bakoitzaren datu ekonomikoak

1. eskatzailea

Zerga-oinarriaren atal orokorra (errenta Nafarroan 507)

Errenta salbuetsiak (errenta Nafarroan 529)

2. eskatzailea (halakorik bada)

Zerga-oinarriaren atal orokorra (errenta Nafarroan 507)

Errenta salbuetsiak (errenta Nafarroan 529)

Eskatzailearen hobespenak*

Eskuratzeko bidea. *(Hirurak hauta ditzakezu)*

Erosketa Alokairua Erosteko aukerako alokairua

Bete, zure aukeraren arabera, eskatzen den informazioa (bidezkoa bada) baremoan dagozkion ataletan.

Mota. *Erosketa bada, aukeran duzu BOE eta/edo PTE eskatu (biak hautatuz gero, markatu zein hobesten duzun); alokairua bada, BOE baizik ez duzu aukeran.*

BOE 1. aukera 2. aukera

PTE 1. aukera 2. aukera

Logela kopurua. *Markatu 1 zure lehen hobespenean eta 2 zure bigarrenean (aukeran).*

Logela 1 2 logela 3 logela 4 logela

Etxebizitza zer udalerritan lortu nahi duzun. *(Gehienez ere 5 adierazi)*

.....

.....

.....

Zer etxebizitza mota lortu nahi duzun. *(Egin zure aukera)*

Berria

Erabilia

Berdin dio

Hobespena. *(Egin zure aukera)*

Logela kopurua

Etxebizitza mota

**Agertzen diren hobespenak erabakigarriak izanen dira adjudikatuko den etxebizitzarako.*

Erosketen baremoa

Jabetza eta Erosteko Aukeratzeko Alokairua Eskuratzeko Baremo Bakarra, Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legearen arabera.

1. **Etxebizitza-premia** (gehienez 55 puntu)
B, C, D, E eta F ataletako puntuazioak ezin dira metatu.
 1. A. Eskaera sinatzen duen eskatzaile bakoitzeko eta bere ondorengo adingabe bakoitzeko 7 puntu
 1. B. Titularra izateagatik prezio libreko etxebizitza desegoki batena (ikusitako ondoko taula) edo desgaitasuna duten pertsonendako egokitu gabeko batena 12 puntu

Etxebizitza libre bat desegokia dela onartzeko baldintzak						
Lagun kopurua	1 edo 2	3	4	5 edo 6	7	7+n
Etxebizitza librea: azalera erabilgarria honenbeste edo txikiago	30 m ²	50 m ²	65 m ²	80 m ²	90 m ²	90 m ² +10n

Etxebizitza babestu bat desegokia dela onartzeko baldintzak				
Lagun-kopurua	3	4	7	9
Logela-kopurua (sukaldea, bainugela eta egongela izateaz gain)	1	2	3	4

1. C. Alokairu kontratu bat sinaturik izateagatik Alokairuen Sistema Publikoan 10 puntu
 (DaVid eta EmanZipa programak barne)
1. D. Alokairu kontratu bat sinaturik izateagatik Alokairuen Sistema Publikotik kanpo 5 puntu
1. E. Beste familia-unitate batzuen etxebizitzan bizitzeagatik haiekin batera 2 puntu
1. F. Alokairuko etxebizitza batean legez bizitzeagatik kontraturik gabe, lagata edo partekatuta 2 puntu
2. **Familia-unitatean desgaitasunen bat duen norbait izatea, aitortutako desgaitasun-maila % 65ekoa edo handiagoa bada**
 2. A. Lagun bakarra bada 5 puntu
 2. B. Bi lagun edo gehiago badira 10 puntu
Desgaitasunen bat duten pertsonendako erreserba berezian, etxebizitza izateko premia egiazatuari dagokion gehieneko puntuazioari gehituko zaizkio 10 puntuak, eta 65 puntura arte iritsi ahal izango da.
- 3.1. **Kontu korrontearen, aurrezki-kontuaren, gordailuaren edo antzeko finantza-produktu baten titulartasuna** (gehienez 15 puntu)
 - 3.1.A. Kontu korrontearen, aurrezki-kontuaren, gordailuaren edo finantza-produktu baten titulartasunagatik, urte bakoitzeko abenduaren 31n 8.000 euro edo gehiagoko zenbatekoa badu (urte bakoitzeko)..... 3 puntu
 (gehienez ere 5 urte hartuko dira kontuan)
- 3.2. **Bananduak, dibortziatuak edo bikote egonkorra desegin dutenak**
 - 3.2.A. Eskatzaile bananduak, dibortziatuak edo bikote egonkorra desegin dutenak, etxebizitza familiarraren hipoteka-karguei aurre egiten dietela justifikatzen badute (urte bakoitzeko)..... 3 puntu
4. **Nafarroako udalerrri batean edo hainbat udalerritan erroldatzea**
 - 4.A. 4 urte baino gehiagokoa bada 4 puntu
 - 4.B. 8 urte baino gehiagokoa bada 8 puntu
5. **Familia gurasobakarraren titulu indardunaren titularra izateagatik**
 - 5.1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak emandako titulu indarduna 7 puntu

Izena ematean eman beharreko informazioa

1.D. atala

Errentatzailearen izen-deiturak

Errentaren zenbatekoa

3.1. atala

Abenduaren 31n 8.000 euroko edo gehiagoko saldoa izandako urteen kopurua

3.2. atala

Ezkontzaren desegitearen edo bikotearen hausturaren ebazpen judizialaren, gordailutzearen edo ebazpen administratiboaren data

Oharra: Puntu-berdinketarik izanez gero, diru-sarrerara ponderatu txikiak dituenaren alde egingen da.

Alokairuen baremoa

Alokairua eskuratzeko Baremo Bakarra, Nafarroan Etxebizitza izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legearen arabera.

1. Etxebizitza-premia (gehienez 55 puntu) B, C, D, E, F, G eta H ataletako puntuazioak ezin dira metatu.

1. A. Eskaera sinatzen duen eskatzaile bakoitzeko eta bere ondorengo adingabe bakoitzeko 7 puntu
1. B. Titularra izateagatik etxebizitza libre edo babestu desegoki batena (ikus atxikitako taula) edo desgaitasuna duten pertsonentzat egokitu gabeko batena, eta bertan bizitzeagatik 12 puntu

Etxebizitza libre bat desegokia dela onartzeko baldintzak						
Lagun kopurua	1 edo 2	3	4	5 edo 6	7	7+n
Etxebizitza librean: azalera erabilgarria honenbeste edo txikiago	30 m ²	50 m ²	65 m ²	80 m ²	90 m ²	90 m ² +10n

Etxebizitza babestu bat desegokia dela onartzeko baldintzak				
Gutxieneko lagun-kopurua	3	4	7	9
Logela-kopurua (sukaldea, bainugela eta egongela izateaz gain)	1	2	3	4

- 1.C. Eskatzailea bananduta edo dibortziatuta egonda, gutxienez ere 2 urtean erabili ezin den etxebizitza baten edo haren zati baten titularra izateagatik 10 puntu
1.D. Alokairu-kontratu bat sinatuta izateagatik Alokairuen Sistema Publikotik kanpo 10 puntu
1.E. Alokairu-kontratu bat sinatuta izateagatik Alokairuen Sistema Publikoan 5 puntu (DaVid eta EmanZipa programak barne)
1.F. Zentsuan izena eman dutenetik azken 2 urtean honako hau egin duten eskatzaileak 10 puntu
- Hipoteka-zorra ordaintzeko beren ohiko etxebizitza entregatzea.
- Beren ohiko etxebizitza saltzea hipoteka-zorren kitzatze osoa edo partziala eginda.
- Beren ohiko etxebizitzatik egozteko ebazpen judiziala jasotzea prozesu judizial edo judizioz kanpokoen ondorioz, izanik prozesu horiek hipoteka betearazteko edo ohiko etxebizitzaren errentamendua fede onez ez ordaintzeagatik maizterra botatzeko.
1.G. Beste familia-unitate baten etxebizitzan bizitzeagatik haiekin batera 10 puntu
1.H. Alokairuko etxebizitza batean legez bizitzeagatik kontraturik gabe, lagata edo partekatuta 2 puntu

2. 35 urte edo gutxiagoko edo 65 urte edo gehiagoko eskatzaile bakoitzeko 5 puntu

3. Familia unitatean desgaitasunen bat duen norbait izateagatik, desgaitasun-maila aitortua duenean

- 3.A. % 33ko edo gehiagoko eta % 65eko edo gutxiagoko desgaitasun-maila duen lagun bakoitzeko 5 puntu
3.B. % 65eko edo gehiagoko desgaitasun-maila duen lagun bakoitzeko 10 puntu

4. Aurrekoak

Familiako lehen gradurainoko aurreko bakoitzeko, eskatzailearekin bizi bada eta PFEZaren gaineko aitortuenean kenkaria izateko eskubidea badu 2 puntu

5. Genero-indarkeriaren biktima izateagatik 5 puntu

6. Nafarroako udalerrri batean edo hainbat udalerritan erroldatzea

- 6.A. 4 urte baino gehiagokoa bada 4 puntu
6.B. 8 urte baino gehiagokoa bada 8 puntu

7. Familia gurasobakarraren titulu indardunaren titularra izateagatik

- 7.1 Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak emandako titulu indarduna 7 puntu

Izena ematean eman beharreko informazioa

1.E atala

Errentatzailearen izen deiturak

Errentaren zenbatekoa

.....

.....

4. atala

Aurrekoa identifikatzeko datuak (NAN/IFZ, izen-deiturak)

.....

Oharra: Puntu-berdinketarik izanez gero, diru-sarrera ponderatu txikiak dituenaren alde egingen da.



Informazio gehiago:
www.vivienda.navarra.es
www.nasuvinsa.es

Zalantzak argitzeko:
censo@nasuvinsa.es

Nasuvinsa 
Navarra de Suelo y Vivienda, S.A.

Gobierno de Navarra  **Nafarroako Gobernua**

